



ERMUKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE ERMUA

## **15. Ordenantza Fiskala**

### **Herri erabilerako lurrak irabazteko asmoarekin mahai eta aulkiekin atzemateagatiko tasa**

#### **I. XEDAPEN OROKORRAK**

##### **1. ARTIKULUA**

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunak araupetu dituen abenduaren 16ko 2005/9 Foru Arauaren 21. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Herri Erabilerako Lurrak Irabazteko Asmoarekin Mahai eta Aulkiekin okupatzearen ziozko tasa ezarri da. Tasa horretan honako ordenantza hau izango da eraentzaile; ordenantzaren arauak bat datoz abenduaren 16ko 2005/9 Foru Arauan adierazitakoarekin.

#### **II. ZERGA EGITATEA**

##### **2. ARTIKULUA**

Zerga-egitatea Udalaren herri-jabariaren bakarreko erabilera edo aprobetxamendu berezia da.

#### **III. TASA ORDAINDU BEHARRA**

##### **3. ARTIKULUA**

Tasa ordaindu beharra Udalak baimena ematen duenean sortuko da, edo aprobetxamenduari ekiten zaionean, baldin eta Udalaren lizentziarik gabe hasten bada.

#### **IV. SUBJEKTU PASIBOA**

##### **4. ARTIKULUA**

Ordenantza honetan araupetutako tasa ordaindu behar dute lizentzia jasotzen duten pertsona edo erakundeek, edo aprobetxamenduaren onura jasotzen dutenek, baimenik gabe arituz gero.

#### **V. ZERGA OINARRIA**

##### **5. ARTIKULUA**

Zerga-oinarria mahai eta aulkien kopuruaren eta kalearen kategoriaren arabera da.

#### **VI. KUOTA**

##### **6. ARTIKULUA**

1. Tasaren tarifak honako hauek izango dira:

A) Eskatutako mahai-unitate eta lau aulkiko multzo bakoitzeko.

| URTEKOA       | Euroak |
|---------------|--------|
| 1. zona (EJZ) | 92,25  |
| 2. zona (EJZ) | 69,25  |
| 3. zona (EJZ) | 46,20  |

2. Interesatuak lizentziari uko egiten badio edo hartan atzera egiten badu, 1 A) puntuko tarifa aplikatuz sortzen den kopuruaren %15 ordaindu beharko da.

Uko edo atzera egitea berariazkoa izan beharko da eskabidea aurkeztu ondoren, eta gehienez ere lizentzia eman dela jakinarazten den egunetik zenbatu beharreko egutegiko 15 egun igaro baino lehen, baldin eta herri-bidea atzeman ez bada.

## VII. KUDEAKETA ETA ZERGA BILKETA

### 7. ARTIKULUA

1. Kuoten arabera ordainaraz daitezkeen kopuruak eskatutako edo egindako aprobetxamendu bakoitzeko likidatuko dira, dagokion ekitaldi bakoitzeko.

2. Ekitaldian egindako altek aprobetxamendua baimendu edo egin den seihileko naturaletik aurrera izango dute eragina, eta Administrazioak horien kitapena eta jakinarazpena egingo du.

3. Titularrek jardueraren behin betiko bajaren adierazpena aurkeztu behar dute, eta Administrazioari jakinarazi eta hurrengo hilabeteko lehen egunetik aurrera izango ditu ondorioak. Une horretara arte sortutako kuotak ordaindu beharko dituzte, eta ez dute itzulketak edo baliogabetzeak erreklamatzeko eskubiderik izango.

4. Urtero errolda bat egingo da, ordaindu behar duten pertsonen izenekin eta helbide fiskalekin, bai eta emaitzazko tarifa eta oinarriekin ere. Errolda hori, eskumena duen udal-organoak onetsi ondoren, jendaurrean jarriko da, interesdunek erreklamazioak egin ahal izateko.

## VIII.ORDAINDU BEHARRA

### 8. ARTIKULUA

Ordenantza honetan araupetu den tasa ordaindu beharra honela sortzen da:

a)Baimen berriak badira, lizentzia ematen den unean.

b)Baimendu eta luzatutako emateak badira, urte naturaleko lehenengo egunean.

c) Okupazioarengatik ordaindu beharreko tasa ordaindu ezean galdu egingo da baimena, beti ere Alkatetzak ebazpen arrazoitua eman ondoren.

## **IX. AZKEN XEDAPENA**

Herri Erabilerako Lurrak Irabazteko Asmoarekin Mahai eta Aulkiekin Atzementegatik Tasa arautzen duen Ordenantza honek indarrean jarraituko du 2026eko abenduaren 1tik aurrera. Ordenantza hori 2025ean onetsia izan zen eta abenduaren 31ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 249 zenbakian izan zen argitaratua.